

2/24

irizpena

Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena arautzeko eta EAeko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzeko

Dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2024ko urtarrilaren 29a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Araoetarako Batzordea

Irizpena 2/24

I.- AURREKARIAK

2024ko urtarrilaren 8an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren idazkia sartu zen eta txostena eskatu zuen *Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzeko dekretu-proiektuari* buruz, 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoak, 3.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

1. artikuluan azaldutakoari jarraikiz, kontsultatzen den arauaren xedea da nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpena arautzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzea, euskal administrazio publikoen tresna izan dadin, nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorea planifikatzeko, antolatze eta garatzeko behar den informazio guztia modu iraunkor, integratu eta eguneratua izateko.

Jasotako dokumentuaren kopia berehala bidali zitzaien Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, euren proposamenak eta iritzia igorri eta horien berri lan-batzorde egokiari helaraz ziezaieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudian ezarritakoari jarraikiz.

2024ko urtarrilaren 19an, Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen eta, hartutako erabakiak oinarri hartuta, irizpen-proiektu hau sortu zen. Ondoren, urtarrilaren 29an, Batzordearen Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion, eta aho batez onetsi zuten.

II.- EDUKIA

Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzeko dekretu-proiektuak honako hauek ditu: zioen azalpena, 5 kapitulutan antolatutako 19 artikulua, hiru xedapen iragankor, indargabetzaile bat eta bi azken xedapen, eranskin batekin batera.

Zioen azalpenak dio Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko urriaren 7ko 422/2013 Dekretua aplikatzearen ondorioz, ikusi dela zenbait aldaketa egin behar direla, dekretua hamar urtez aplikatzearen ondorioz sortutako behar berriei erantzuteko. Hala, behar berri horiek hura indargabetzea eta horren ordez arau berri hau aplikatzea gomendatzen dute.

Lehenik eta behin, 422/2013 Dekretuak nekazaritzako eta elikagaigintzako industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena ezartzen du, jarduerari ekin aurretik bete beharreko baldintza gisa, eta dekretuak berak xedatutakoaren arabera, erantzukizunpeko adierazpena administratuak, bere aukeran, aurrez aurre edo bide telematikoz aurkeztu ahal izango du.

Alabaina, gerora, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea indarrean jarri zen, eta 14. artikuluan (“Administrazio Publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharra”) xedatzen duenez, jarduera profesionala dela-eta zenbait pertsona juridikok eta pertsona fisikok nahitaez erabili beharko dituzte bitarteko elektronikoak administrazio

publikoekin harremanetan jartzeko, administrazio-prozedura baten edozein izapidetarako. Beraz, dekretua halaberrez aldatu behar da.

Bigarrenaz, Estatuak abenduaren 27ko 1054/2022 Errege Dekretua onetsi du. Horren bidez, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei eta nekazaritza-ekoizpenari buruzko informazio-sistema, nekazaritza-ustiatzeien erkidegoko erregistroa eta nekazaritza-ustiatzeiaren koaderno digitala ezartzen eta arautzen dira. Oinarritzko araua da eta ezinbestez bete behar da. Izan ere, nekazaritza- eta basogintza-sektorea behar bezala kudeatzeko eta antolatzekeo administrazioak garatutako sistema informatikoen multzoa arautzen du.

Beste alderdi batzuen artean, nahitaezkoa da EAeko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroa eta Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Ustiatzei eta Nekazaritza Ekoizpenari buruzko Informazio Sistema (SIEX) elkar konektatuta egotea eta, ondorioz, dekretu berriak hori ere aurrez ikusi behar du.

Xede horrez, hona hemen dekretu-proiektuak dituen artikulua:

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. art. Xedea
2. art. Definizioak

II. KAPITULUA. JARDUERARI EKITEKO ETA ALDAKETAK EGITEKO BALDINTZAK

3. art. Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien jarduerari ekiteko baldintzak
4. art. Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrietan aldaketak egiteko baldintzak
5. art. Dokumentazioa
6. art. Betebeharrak

III. KAPITULUA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN ERREGIMENA

7. art. Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien jarduera hasieraren erantzukizunpeko adierazpena
8. art. Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu
9. art. Ez-betetzeak eta jarduera etetea

IV. KAPITULUA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZA ETA ELIKAGAIGINTZA INDUSTRIEN ERREGISTROA

10. art. Helburuak
11. art. Izaera eta atxikitze organikoa
12. art. Aplikazio-eremua
13. art. Erregistroan izena ematea

14. art. Erregistroaren edukia.

15. art. Euskal Autonomia Erkidegoko Ardoen eta Edari Alkoholdunen Botilaratzaileen eta Ontziratzaileen Erregistroa

16. art. Identifikazio-zenbakiak esleitzea

17. art. Erregistrora sartzeko eta datuak zabaltzeko arauak

18. art. Administrazio Publikoaren Organoen arteko koordinazioa

V. KAPITULUA.- ZEHAZPEN-ARAU BIDEA

19. art. Zehapen-araubidea

1.X.I. Aurretiko inskripzioen indarraldia

2.X.I. Ardoa eta edari alkoholdunak ontziratatu eta botilaratzeko jardueraren inskripzio zenbakiak

3.X.I. Izapidetzen ari diren espedienteak

X. Indargabetzailea, 422/2013 Dekretuari, urriaren 7koari dagokionez. Horren bidez, nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen ziren.

ERANSKINA. Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien kategoriei eta jardueri buruzko zerrenda

III.- GOGOETA OROKORRAK

Guk iritzia emateko *Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzeko dekretu-proiektua* aurkeztu zaigu. Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpena arautzen du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua ere bai, euskal administrazio publikoen tresna izan dadin, nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorea planifikatzeko, antolatze eta garatzeko behar den informazio guztia modu iraunkor, integratu eta eguneratua izateko.

Zioen azalpenean adierazitakoaren ildotik, indarreko araudia (422/2013 Dekretua) azken hamar urtez aplikatu ondoren sortu diren behar berrietara egokitu nahi da, 39/2015 Legeak arautzen dituen administrazio-izapideak egokitzeaz gain, pertsona juridikoei eta profesionalei behartzen baitie administrazio publikoekin beren-beregi bitarteko elektronikoen bidez erlazionatzera.

Halaber, testu berriarekin 1054/2022 Errege Dekretura egokitzea da helburua, Estatuan nekazaritza- eta basogintza-sektorea behar bezala kudeatzeko eta antolatze administrazioak garatu duen sistema informatikoen multzoa arautzen duen oinarritzko araua baita.

Dekretu-proiektuak nekazaritza- eta elikagaigintza-industriaren behar berrietara eta, eraginpeko sektoreetan lege-segurtasunari laguntzeko, arau-aldaketetara egokitu nahi duen neurrian, balorazio positiboaren ematen diogu.

Aurkeztutako testuaren edukiari dagokionez, erabili den terminologiaren gainean eta arauaren euskarazko bertsioaren inguruan honako gai hauek landu nahi ditugu:

- ✓ Arauak zenbaitetan (3., 4. eta 5. artikuluetan, apartatu desberdinetan) “industria mota bakoitzean teknikari eskudunaren kategoria duen pertsona bat...” aipatzen du. Aipamen hori euskaraz “teknikari eskudun” gisa itzuli da. Dena den, uste dugu gaztelaniazko bertsioak administrazio eskuduneko teknikaria aipatu ordez, “teknikari aditua” aipatu nahi duela, hortaz, euskarazko bertsioak “teknikari aditua” aukeratu beharko luke. Hala bada, gaizki itzulita legoke. Horrenbestez, bi bertsioetan termino horiek ikuskatzea gomendatzen da.

Nolanahi ere, dekretu hau ondoren beste arau baten bidez garatzea aurrez ikusten ez bada, “teknikari eskuduna/aditua” kategoria apartaturen batean definitu beharko litzateke lege-segurtasunaren printzipioari begira.

- ✓ Dekretuan askotan aipatzen da “nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloan zuzendaritza eskuduna”.

Gaur egun, EAEk Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza eta Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza ditu (biak Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren mende). Horregatik, eta arautzen den arloa aintzat hartuta, arrazoizkoa dirudi dekretuak aipamen hori ordezte, eta “elikagaigintza-industrietako zuzendaritza eskuduna” ipintzea, nekazaritza-industriaren aipamena ezabatuz.

Adierazitakoa abiapuntutzat hartuta, gure ustez baloratu beharko litzateke dekretuaren izenburua eta arautzen den erregistroaren beraren izena zuzenak ote diren.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

3. art. Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien jarduerari ekiteko baldintzak

Artikulu honen **1. apartatuak**, instalazioari dagokionez, nekazaritza- eta elikagaigintza-industriek jarduerari ekiteko bete behar dituzten baldintzak arautzen ditu. Aurkeztutako zerrendari **baldintza bat eranstea** iradoki da, letra lodiz aipatzen den edukiarekin:

“1. Aplikatzekoa den araudiak agintzen duena betetzeaz gain, dekretu honen ondorioetarako, nekazaritza- eta elikagaigintza-industriek, jarduerari ekin ahal izateko, baldintza hauek bete behar dituzte instalazioari dagokionez: ...

h) Elikagaigintza- eta Elikagai-Enpresen Osasun Erregistro Orokorrean inskribatuta egotea eta nahitaezko osasun-baimena izatea”.

7. art. Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien jarduera hasieraren erantzukizunpeko adierazpena

Lehenik eta behin, artikulu honen **5. apartatuak** lehenengo paragrafoan honako hau xedatzen du: “*Erantzukizunpeko adierazpena aurkezteak ahalmena emango du dagokion jarduera Estatuko lurralde osoan garatzeko*”.

Arrantza-itsasontzien kasuan, ordea, askotan beren jarduera Estatuko mugapetik kanpoko uretan garatzen da. Beraz, dekretu-proiektuak nahiz eta egoitza EAEn izan, itsasontzien jarduera hirugarren

herrialdeko uretan edo nazioarteko uretan garatzen duten arrantza-industriak kontuan hartu eta sartu beharko lituzke.

Bigarrenez, artikuluko horren **6. apartatuak** honako hau xedatzen du: *“Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den funtsezko datu edo informazioaren batek zehaztasunik ez badu edo faltsua bada, edo aurkeztu ez bada, edo agintaritzaren eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena edo deklarazioa dena betetzearen egiaztatzea, eragindako jardueraren garapena edo funtzionamendua bertan behera gera daiteke egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, administratibo edo zibilak.*

Era berean, nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendari eskudunak inguruabar horietako bat edo batzuk gertatu direla ebazten bada, interesdunak egoera juridikoa jardura hasi aurreko unera itzuli beharko du eta ezingo du urtebeteko epean xede bereko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu. Hori guztia, aplikatu beharreko araudi sektorialean ezarritakoaren arabera. Alde batera utzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluko laugarren apartatua xedatutakoa, aurreko paragrafoan aipatutako ebazpena eman aurretik, hiru eguneko epea egongo da interesdunari entzunaldia egiteko”.

Lehenik eta behin, zuzendu beharko da “aurreko paragrafoan aipatutako ebazpena” aipamena, paragrafo berdineko ebazpenaz ari baita.

Horrez gain, helbururako hiru eguneko epea laburtzat jotzearen kalterik gabe, gure ustez, 9. artikuluan (2. eta 5. apartatuak) xedatutakoaren antzera, zehaztu beharko litzateke interesdunaren entzunaldia egiteko epea egun baldioduneko izango dela, beraz, idazketa ildo horretatik osatzea gomendatzen da.

13. art. Erregistroan izena ematea

Artikulu honen **3. apartatuak** dekretuaren 6. artikulua aipatzen du, baina horren ordez, 7. artikulua jarri behar da, horrek arautzen baitu hizpide den “Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien jardura hasieraren erantzukizunpeko adierazpena”.

17. art. Erregistrora sartzeko eta datuak zabaltzeko arauak

Artikulu honen **2. apartatuak** dekretuaren 13. artikulua aipatzen du, baina horren ordez, 14. artikulua jarri behar da, horrek arautzen baititu, 2. apartatua, hizpide diren “Erregistroaren edukiko” datu osagarriak.

Eranskina

Hurrengoak **eranstea** proposatzen da:

- I. apartatua: Jarduerak osatuagoak izateko, “Fabrikazioa, elaborazioa eta transformazioa” kategorian letra lodiz nabarmendutako testua eranstea iradoki da, honako modu honetan gelditzeko: **“Ekoizpena, erauzketa, fabrikazioa, elaborazioa eta transformazioa”**.
- II.1 apartatua. Harakintza-industria: Jarduerak osatuago arautzeko, beste apartatu batzuk gehitzea proposatzen da, hala nola **haragi-produktu ketuak** eta **odolkiak nahiz barrukiak**.
- II.2 apartatua: Arrainaren industria: Jarduerak osatuagoak izateko, beste jardura bat erantsi daiteke, hain zuzen, **arrain-irinarena**. Era berean, c) atala osatzea proposatzen da: “Arrantza produktu freskoak **eta hoztuak...**”

- II.3 apartatua. Landareen industria: Jarduerak osatuagoak izateko, beste jarduera bat erantsi daiteke, hain zuzen, **landare-oinarria duten plater prestatuak**.
- II.4 apartatua. Olio eta koipe jangarrien industria: “Arrain-olioak edo -koipeak” eta “beste itsas animalia batzuen koipeak” errepikatzen dira, arrainaren industrian (II.2 apartatua) sartzen baitira. Gure iritziz, arrainaren industrian bakarrik aipatu beharko lirateke, eta, ondorioz, bidezkoa da apartatu honetatik ezabatzea.
- II-6 bis apartatua edo II-7 apartatu berria gehitzea proposatzen da honako hauek berrantolatzeko ondoren aipatzen den izenburupean: **“Haurrak eta jaioberriak elikatzeko produktuen industria”**.
- II.7 apartatua. Animaliak elikatzeko produktuen industria: Jarduerak modu osoagoan arautzeko, beste apartatu batzuk sar daitezke, besteak beste, **ehizako animalientzako elikagaiak** eta **akuikulturako animalientzako elikagaiak**.

V.- ONDORIOA

Euskadiko EGABren ustez egokia da *Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzeko dekretu-proiektua* izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen oharrak kontuan hartuta.

Bilbon, 2024ko urtarrilaren 29an.

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Izaskun Astondoa Sarria